

## **ARIMEN AGERKUNDEA BERMEON-I**

### *Angel Madariaga Aitak 1921an bidalitako informazioa*

Bermeon uste izaten dute inor promes bat bete barik hil ezker, purgatorioan egoten dela ahalik eta beste batek bere ordeztu artean.

Askotan agertzen dira halan hildakoen arimak. Eta agertzen zaionari esaten ei dio:

- Zapirik baduzu?
- Bai.
- Ekardazu, bada, mesedez.

Eta zapia, arimek ukitzen dutenean erre egiten ei da. Orduan arimak esaten ei dio:

- Lagun iezadazu mesedez Gaztelugatxeko Donienera neure bizian egindako promesa betetzera.

Joaten dira, bada, eta Burgoa ingurutik Arene, Agarre, Mikel Deuna eta beste auzoetako etxe batzuk argi-argi egoten ei dira, beste batzuk ilun-ilun. Eta arimak esaten ei dio lagunari:

- Ikusten dituzu hango etxe argi-argi?
- Bai.
- Eta beste batzuk ilun-ilun?
- Bai.

Bada argi dauden etxeetan arrosarioa otoitz egiten dute gaur, ilun daudenetan ez.

Donienen, gaua izan arren, atea ere zabalik egoten ei dira. Eta promesa bete eta gero arima eta laguna etortzen ei dira lehengo lekura, eta orduan arimak esaten ei du:

- Ekardazu eskua.

Eta eskua ez ei da bero egoten. Eta arimak esaten ei dio:

- Orain banao zerura, eta eskerrik asko zeuri.

**Joxe Miel Barandiaran**

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973